



## Gune Historikoak

# IBILBIDEA 4



**Idiazabalen** (gaztarenatik ezaguna), Eliza, artzaiaren monumentua, Txomenaneko Parke Botanikoa eta Gaztaren Interpretazio eta Dastaketa Zentroa daude. Bertatik **Segurara** abiatuko gara ondoren, bere Aste Santuagatik eta bere ondare historiko-arkitektonikoarengatik: Eliza, Ardixarra etxea (Erdi Aroko Interpretazio Zentroa), Santa Isabel Monastegia, ermitak, Jauregiak, aintzinako harresiaren portalak...) ezaguna den ertaroko Segurako herrira hurbiltzeko. Aztiriako auzoa ezagutu ondoren, **Zeraina** (Parke Kulturala) iritsiko gara herri txiki honen istorioa jasotzen duen diaporama ezagutzeko; ondoren, Eliza, museo etnografikoa, espetxea, Larraondoko zerrategi hidraulikoa eta Aizpeako meategiak ikusteko aukera izango dugu.